

2022 / 2023 ikasturtea

**KIRURGIA PROGRAMATUAREN AURREKO
ANTSIETATEAREN MANEIURAKO
ESTRATEGIAK**

Eric Iraola Morate

LABURPENA

Sarrera: erabiltzaileen %11-80 artean kirurgiaren aurretik antsietatea dute. Antsietatea duten pazienteek sintoma fisikoak eta psikologikoak pairatzen dituzte, anestesiaren indukzio zailagoa dute eta kirurgia ondorengo konplikazio gehiago dituzte. Antsietateak hautazko prozeduren dinamika aldatzeko potentziala du eta gaizki maneiatzan denean, erabiltzaileak interbentzioa atzeratzea edo bertan bera uztea erabaki dezake. Erizainak gertutasun eta konfiantza handia transmititzen duten profesionalak dira eta antsietatearen maneiuan garrantzia izango dute.

Helburuak: berrikuspen bibliografiko honen bidez kirurgia programatua egingo zaien pazienteen kirurgiaren aurreko antsietatearen maneiurako estrategien ezaugarriak eta eraginkortasuna aztertu dira.

Metodologia: bilaketak 2022ko azaroaren eta abenduaren artean egin dira. PubMed, BVS eta Cochrane datu-baseak erabili dira eta guztira 34 artikulu barneratu dira.

Emaitzak: heziketa antsietatea murrizteko eraginkorra den interbentzioa da. Heziketaren gehigarri moduan bideoak, eskuorriak, ebakuntza-gela bisitatzea edo errealtitate birtualaren erabilera aztertu duten ikerketak barneratu dira (gehienetan antsietatea murrizten da). Uneko antsietateari aurre egiteko, erlaxazio bidezko irudi gidatuak, elkarrizketa motibazionalak, bero bidezko erlaxazioa edo bestelako terapia alternatiboen erabilera aztertu duten ikerketak aurkitu dira eta badirudi antsietatea murrizteko eraginkorrap direla. Amaitzeko, segurtasun terapeutiko gehiago duten ordezko farmakoen erabilerari buruzko artikuluak barneratu dira (Melatonina, Gabapentina eta Pregabalina).

Eztabaidea: interbentzio ez farmakologikoak erizainen zeregin garrantzitsuenetakoak dira erabiltzaileen antsietatea murrizteko. Denbora faltari aurre egiteko heziketa eraginkorragoa eman behar da. Terapia alternatiboak antsietateari aurre egiteko eraginkorrap eta eskuragarriak diren interbentzioak dira. Beste testuinguruetaan interbentzioen eraginkortasuna frogatzeko ikerketa gehiago beharrezkoak dira.

Ondorioak: pazientean oinarritutako arreta indibidualizatua erabiltzaileak ikuspuntu holistiko batetik tratatzea implikatzen du. Erabiltzailearen prestakuntza psikologikoa beharrezkoa da eta horretarako erizainak gakoa izango dira. Erizainak fisiko eta emozionalki implikatzen dira prozesu guztian zehar eta kirurgia aurreko fasean erabiltzailearekin duten gertutasunak sortzen duen konfiantza eta erlazio terapeutikoarenengatik antsietatearen eta beldurren murrizketan eragina izango dute.

Hitz gakoak: “antsietatea”, “kirurgia programatua”, “interbentzioa”, “ebakuntza aurrea”.

AURKIBIDEA

SARRERA	1
HELBURUA	3
METODOLOGIA.....	4
EMAITZAK.....	5
EZTABADA	10
ONDORIOAK.....	13
BIBLIOGRAFIA	15
ERANSKINAK.....	21
1. eranskina: bilaketa-estrategiak	21
2. eranskina: artikuluen laburpen taula	22
3. eranskina: ansietatea neurzeko erabilitako eskalen azalpena.....	28
3.1 Spielberg State-Trait Anxiety Inventory (STAI):	28
3.2 100 mm EVA (Escala Visual Analogica) edo Visual Analogue Scale (VAS) .	29
3.3 Anxiety Specific to Surgery Questionnaire (ASSQ).....	30
3.4 Amsterdam Preoperative Anxiety and Information Scale (APAIS)	30
3.5 Beck Anxiety Inventory (BAI).....	31
3.6 Hospital Anxiety and Depression Scale (HADS)	32

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula: sinonimoak eta deskriptoreak, atalka.....	4
2. taula: barneratze- eta kanporatze-irizpideak.....	4

SARRERA

Kirurgia tradizionalki prozedura kirurgikoak deskribatzeko erabilitako terminoa da. Ebakidurak, ehunen josturak edo bestelako teknikak erabiltzen dira gaixotasunak, lesioak edo itxuragabetasunak tratatzeko. Kirurgia programatua denboran atzeratu daitekeen kirurgia mota da; kirurgia aurreko beharrezkoa den prestakuntza ahalik eta hoberena izateko eta ebakuntzak arrakasta izateko probabilitate handiena bermatzeko (1).

Erabiltzailearentzat ez da erraza kirurgiaren prozesua aurrera eramatea, berarengan estresa eta antsietatea eragiten duen egoera delako. Estresa eta antsietatea gizakiak kezka edo mehatxu moduan antzematen duen egoera baten aurrean dituzten ohiko erreakzioak dira. Gorputzak arriskutsua izan daitekeen egoera bat antzematean iheserako edo borrokarako prestatzen da. Lan honetan estresa eta antsietatea ia sinonimo gisa hartu daitezke, testuinguru honetan antzeko erreakzioak direlako. Estresa gorputzak mehatxu baten aurrean duen erreakzioa da eta antsietatea gorputzak estresaren aurrean sortzen den erantzuna da (2). Antsietatea uneko edo etortzear dagoen egoera espezifiko bati erantzuteko tentsioa, urduritasuna, beldurra eta nerbio sistema autonomoaren aktibazio bortitzera eragiten duen egoera emozional iragankorra da (3). Ebakuntza baten aurrean sentitzen den antsietate zehatzari, kirurgia aurreko antsietatea deritzo. Kirurgia aurreko antsietatea erabiltzaileak gaixotasun baten, ospitalizazioaren, anestesiaren edo kirurgiaren inguruan sentitzen dituen kezkak sortutako egonezina edo tentsioa sentiarazten duen egoera da. Ebakuntza baten zain dauden pazienteen gehiengoek antsietatea esperimentatzen dute eta kirurgia eguna biziarentzat arriskutsua den gertakaria bezala ikusten dute (4).

Espainiako ministerioaren datu estatistikoek diotenez 2021-2022an Spainian 3.365.100 interbentzio kirurgiko egin ziren eta Euskal Herri mailan 213.100 (5). Aipatzeko da kirurgia aurreko antsietatearen intzidentzia oso aldakorra dela interbentzioaren, pazientearen generoaren eta aurreko esperientzien arabera. Literaturak dioenez, pazienteen %11-80 artean kirurgia aurreko antsietatea pairatzen dute (6).

Antsietatea modu anitzetan azaleratu daiteke eta sintomak sistema sinpatikoaren, parasinpatikoaren eta endokrinoaren emaitza da (4). Antsietatearen ezaugarri nagusia, ezinegon mental eta fisiko bortitzak dira. Erabiltzailea ez da gai haren sentimenduak edo etorkizuneko gertakariak kontrolatzeko eta ondorengo adierazpen fisikoak pairatu ditzake: tentsio muskularra, esku ahurretako izerdia, urdaileko mina, arnasketa moztua,

zorabio sentsazioa, bihotz-maiztasun altua, mugimendu errepikakorrak, mugimendu traketsak, hizkera moztua eta ahozko espresiorako bestelako arazoak (3).

Kirurgia aurreko antsiestateak jatorri ugari izan ditzake. Kausa ohikoenak: minari beldurra, ezezagunari beldurra, kanpoko pertsona eta faktoreekiko dependentzia sentsazioa (besteen eskuetan jartzeari beldurra), gorputzko aldaketak, heriotzaren aukera, hitz ezezagunen eta mehatxarien beldurra, eta zerbait gaizki badoa? Moduko galderak egitea eta nagusiki anestesia dira (3, 7).

Antsiestatea pairatzeko arrisku faktore anitzak daude. Faktore nagusia generoa da, ikerketen arabera emakumeek kirurgia aurreko antsiestatea izateko probabilitate altuagoa dute. Erabiltzailearen aurreko esperientziak eragin nabarmena du antsiestate mailan, esperientzia ezak edo aurreko esperientzia negatiboek antsiestatea areagotzen dute. Kirurgia motak ere antsiestate mailan eragina du, adibidez kirurgia kardiakoa eta neurokirurgia antsiestate maila bereziki altuak eragiten dituzte (procedura oso inbaditzaileak). Amaitzeko, gorputz aldaketa bortitzak eragiten dituzten prozeduretan antsiestate maila altuagoak erregistratu dira (8).

Antsiestateak hautazko prozeduren dinamika aldatzeko potentziala du. Antsiestatea gaizki maneiatzzen denean, pazienteek interbentzia atzeratzea edo bertan bera uztea erabaki dezake, klinikoki eta ekonomikoki eragin negatiboa izanik. Antsiestate maila altuak arazo emozionalak, arazo psikologikoak eta arazo fisikoak eragitez gain anestesia garaian ere eragina du. Antsiestate maila altua duten pazienteek anestesiaren indukziorako farmako dosi handiagoak behar izaten dituzte eta kirurgia ondorengo konplikazio gehiago dituzte, adibidez: gorakoen eta goragaleen intzidentzia altuagoak, hantura aurkako erantzun murriztua, plaketen aktibitatea baxuagoa, funtzio immunologiko murriztua eta kirurgia ondorengo min handiagoa izaten dute. Aipatutako konplikazioen ondorioz, berreskurapen denbora luzeagoak eta kirurgia ondorengo interbentzia gehiago behar izaten dituzte, ospitalizazio denbora luzatzen delarik (9).

Esan bezala, antsiestate maila altuak kirurgiaren emaitzetan negatiboki eragin dezake, adibidez: Demirhan et al.-ek egindako ikerketa baten arabera, kirurgia kardiakoetan konplikazioak izateko aukera altuagoak daude. Antsiestate maila altuek arritmia bentrikular eta aurikularrak izateko probabilitatea igotzen dute, QT eta P uhinen dispersio altuagoak dituztelako (10).

Morreno-Carrillo et al.-ek egindako ikerketa baten arabera, antsietate maila oso altuak dituzten pazienteek errehabilitazio pobreagoa izaten dute, entzute gaitasuna eta informazioa atxikitzeko gaitasuna murriztua izaten dutelako; beraz, kirurgia ondorengo zainketak egiteko arazoak izaten dituzte (3).

Ebakuntzaren aurretik (kirurgia aurreko konsultan, pazientea ospitaleratzeko garaian edo kirurgia aurreko gelan) erizainek erabiltzailean zentratutako arreta indibidualizatua eskaini behar dute. Erizainak pazientearekiko gertutasun eta konfiantza handia transmititzen duten profesionalak dira, erabiltzaileentzako erreferentzia izango dira eta garrantzitsua da erizainak erabiltzaileen antsietatea maneiatzzen jakitea. Berrikuspen honen bidez kirurgia aurreko antsietatea maneiatzeko erizaintzako interbentzioez gain, erizainek beste profesionalekin batera koordinatuz erabili ditzaketen interbentzioak jorratuko dira.

HELBURUA

Berrikuspen bibliografiko honen helburu nagusia da kirurgia programatua egingo zaien pazienteen kirurgia aurreko antsietatearen maneiurako estrategiak aztertzea. Helburu nagusitik abiatuz, ondorengo azpi helburuak planteatu dira:

- Kirurgia aurreko antsietatearen maneiurako aplikatu daitezkeen interbentzioen ezaugarriak aztertzea
- Interbentzioen efektua edo eraginkortasuna aztertzea.

METODOLOGIA

Berrikuspen honen bilaketa egiteko lehenik ondorengo ikerketa galdera planteatu da: zeintzuk dira kirurgia aurreko antsiestatearen maneiurako estrategiak, helduetan? Galdera honetatik abiatuz, atalak identifikatu dira PIO egitura jarraituz. PIO egitura kontuan izanik 1. taulako hitz gakoak, DeCS eta MeSH-ak planteatu dira (ikus 1. taula).

1. taula: sinonimoak eta deskriptoreak, atalka

ATALAK	SINONIMOAK ETA DESKRIPTOREAK	
P: paciente heldua	MeSH - Adult	DeCS - Adulto
I: kirurgia aurreko antsiestatearen maneiurako estrategiak	“Surgery” “Scheduled surgery” “Preoperative anxiety” MeSH - Anxiety - Preoperative period	“Cirugía” “Cirugia programada” “Ansiedad preoperatoria” DeCS - Ansiedad - Periodo preoperatorio
O: kirurgia aurreko antsiestatea.	“Management” “Reduction” “Control” MeSH - Preoperative care	“Manejo” “Reducción” “Control” DeCS - Cuidados preoperatorios

Bestalde, artikuluak aukeratzerako garaian kontuan izan beharreko barneratze- eta kanporatze-irizpideak zehaztu dira (ikus 2. taula).

2. taula: barneratze- eta kanporatze-irizpideak

Barneratze-irizpideak	Kanporatze-irizpideak
<ul style="list-style-type: none"> Artikuluak kirurgia aurreko antsiestateari buruz hitz egitea. Artikuluko lagina helduak izatea. Antsiestateari aurre egiteko aplikatutako neurrien emaitzak aurkezten dituzten artikuluak. Azterzen den kirurgia, kirurgia programatua izatea. 	<ul style="list-style-type: none"> Artikuluak soilik kirurgia zeharreko edo ondorengo zainketei edo antsiestateari buruz hitz egitea. Artikuluko lagina haurrak izatea. Artikuluak osasun langileen edo familiaren antsiestateari buruz hitz egitea.

Bilaketak PubMed, BVS eta Cochrane datu-baseetan egin dira. Bilaketa-kateak osatzeko 1. taulako sinonimoak eta deskriptoreak erabili dira eta AND eta OR operatzaile booleanarekin konbinazio desberdinak egin dira. Bilaketa-estrategia desberdinak planteatu ondoren, bilaketa gehiegi mugatu gabe artikulu kopuru maneiagarria eta gaiarekin zerikusia duten artikuluak barneratzen dituzten kateak aukeratu dira. Erabilitako behin betiko bilaketa-estrategiak 1. eranskinean ikus daitezke.

Bilaketak 2022ko azaroan eta abenduan egin dira. Guztira iragazki gabe 1159 artikulu aurkitu dira.

Egindako bilaketa mugatzeko ondorengo iragazkiak aplikatu dira: azken 5 urteetako artikuluak eta hizkuntza gaztelania edo ingelesa. Iragazkiekin, artikulu kopurua 234 artikuluetara mugatu da.

Artikulu horiei 2. taulako barneratze- eta kanporatze-irizpideak aplikatzean, 34 izan dira azkenean berrikuspenerako barneratutako artikuluak. Ondorengo artikulu motak barneratu dira: 2 berrikuspen sistematiko, 26 entsegu kliniko, 4 ikerketa kuasi esperimental eta 2 behatzezko ikerketa.

EMAITZAK

Atal honetan berrikuspenaren emaitzak aurkeztuko dira barneratutako artikuluetan oinarrituta. Helburuak jorratzeko emaitzak ondorengo azpiataletan antolatu dira: artikuluen ezaugarri nagusiak, erabiltzaileari zuzendutako heziketa, kirurgia aurretik ebakuntza-gela bisitatzea, terapia psikologiko edo konduktuala, terapia alternatiboak, prehabilitaziorako programak, teknologia berriak eta interbentzio farmakologikoak. Ikerketa bakoitzaren lagina, interbentzio denbora, emaitzak eta neurtzeko modua laburbilduta 2. eranskinean ikus daiteke.

4.1 Artikuluen ezaugarri nagusiak

Lehenik eta behin, 2. eranskineko taulari erreparatuz ikusi daiteke antsietate maila neurtzeko tresna erabilienenak STAI eta antsietaterako EVA eskala direla (eskalei buruzko informazio gehiago 3. eranskinean). Ikerketen laginen media gutxi gorabehera interbentzioko 32-40 pertsonako taldeak izan dira. Antsietate mailen puntuazioak ebakuntza moten arabera aldakorrak dira. Antsietate maila altuenak erregistratu dituzten ebakuntzak: kirurgia kardiakoa, prostatako hiperplasiagatiko kirurgia eta zesareak izan dira (11-13). Antsietate maila baxuena kataratako kirurgian erregistratu da (14). Interbentziorik jaso ez duten edo ohiko tratamendua jaso duten kontrol taldeko pazienteen antsietatearen lehenengo eta azkeneko neurketen arteko konparazioa eginez 2. eranskineko taulan ikusi daiteke kirurgia gehienetan antsietateak gora egiten duela.

4.2 Eraibiltzaileari zuzendutako heziketa

Zortzi ikerketek heziketari buruz hitz egiten dute. Heziketa aztertzen duten lau ikerketen emaitzen arabera ebakuntza egingo zaien pazienteei heziketa ematea antsiestatea murrizteko eraginkorra da, antsiestate maila neurtzeko erabilitako eskaletan murrizketa estatistikoki esanguratsua erregistratu da (11, 15-17). Barneratutako entsegu klinikoetan heziketa kirurgia aurreko kontsultan edo baimen informatua sinatu baino lehen (kirurgia baino 2-15 egun lehen) eman da. Heziketaren bestelako eragin positiboak ere erregistratu dituzte emaitzetan: parametro hemodinamiko hobeak (15), kirurgia egunean lo kalitate hobia (11) eta gogobetetasun maila altuagoa (17).

Heziketarekin jarraituz, bi artikuluk heziketa eskuorrien bidez emateari buruz hitz egiten dute. Batean antsiestatea murriztea lortu da eta bestean interbentzioa ez da eraginkorra izan (16, 18). Entsegu kliniko batean heziketa hitzez edo eskuorri bidez ematearen arteko konparazioa egiten da. Ikerketan kirurgiarako admisio egunean (kirurgia baino egun bat lehen) heziketa taldeari hitzezko informazioa eman zaie eta eskuorri taldeari beraien kabuz irakurtzeko heziketarako eskuorri bat. Emaitzetan ez da erregistratu estatistikoki esanguratsua den desberdintasunik bi interbentzioen artean, bietan antsiestatean murrizketa erregistratu da (16). Gezer et al.-ek egindako entsegu klinikoaren arabera kirurgia aurretik pazienteei eskuorri bat emateak ez du estatistikoki esanguratsua den eraginik antsiestatean (18). Heziketarekin amaituz, heziketa bideo bidez emateari buruz hitz egiten duten hiru artikulu aurkitu dira. Artikulu guztietai interbentzioak antsiestatea murrizteko eraginkorrak izan dira. Entsegu klinikoen emaitzek diotenez erabiltzaileak kirurgia aurreko interbentzio moduan haiei egingo zaien ebakuntzaren nondik norakoak azaltzeko (kirurgia gune desberdinak, anestesia, kirurgian zer egingo dioten...) diseinatutako bideoak ikustea kirurgia aurreko antsiestatea murrizteko eraginkorra da (14, 19, 20).

4.3 Ebakuntza-gela bisitatzea

Ebakuntza-gelara sartu baino lehen talde kirurgikoaren bisita jasotzeari buruz hitz egiten duten bi ikerketa aurkitu dira. Bietan interbentzioaren ondoren kirurgia aurreko antsiestatea maila baxuagoak erregistratu dira. Interbentzioan pazienteek kirurgia aurreko egunean anestesistekin eta teknologo kirurgikoarekin ebakuntza-gela bisitatu dute, bertako ekipamendua ikusi dute eta heziketa jaso dute (guztira ordubeteko iraupena). Ebakuntza-gela bisitatzea kirurgia aurreko antsiestatea murrizteko eraginkorra izateaz gain, interbentzio taldean gogobetetasun maila altuagoa izan da (21, 22).

4.4 Terapia psikologiko edo konduktuala

Terapia psikologikoari edo konduktualari dagokionez, 5 ikerketetan antsietatean emaitza positiboak erregistratu dira. Bi ikerketek erlaxaziorako irudi gidatuen erabilera aztertu dute. Berrikuspen sistematiko batean ikusi da irudi gidatu bidezko terapia jasotzen duten pertsonek kirurgia aurreko antsietatea murritzeko joera dutela. Gainera, emaitzek diotenez terapia individualizatua eskaintza aurretik diseinatutako CD bat jartzea baino eraginkorragoa da (6). Irudi gidatuei buruz hitz egiten duen entsegu klinikoaren arabera, kirurgia aurreko egunean 20 minutuz gidatutako irudi bidezko erlaxazioak kirurgia aurreko antsietatea eta kortisol maila murritzeko eraginkorra da (23).

Terapia psikologikoarekin jarraituz, artikulu batean elkarrizketa motibazionaletan oinarritutako erizaintzako interbentzio baten eraginkortasuna neurtu da. Emaitzen arabera kirurgia aurreko 8 egunetan zehar elkarrizketa motibazionaleko 40 minutuko 3 saio eginez kirurgia aurreko antsietatea murriztu daiteke (24). Beste ikerketa batean entzute terapeutikoaren efektua aztertu da. Ikerketan antsietatea murritzeko interbentzio moduan kirurgia egunean 30 minutuz erabiltzaileek haien beldur, duda edo esperientziei buruz hitz egin dute. Emaitzen arabera, interbentzioa ez da eraginkorra izan kirurgia aurreko antsietatea murritzeko. Antsietate maila oso altua duten pazienteetan antsietatea murriztea lortu da, baina orokorrean antsietate mailaren murrizketa ez da estatistikoki esanguratsua izan (25).

Terapia psikologikoekin amaitzeko, erabiltzailearen arreta desbideratzeko eta erlaxatzeko bestelako elementuak erabili daitezke. Entsegu kliniko batean bero bidezko erlaxazioaren eta informazio prozeduralaren eragina aztertu da. Bero bidezko terapia egiteko kirurgia egunean interbentzio taldeko partaideei bero poltsa bana eman zaie eta 5 minutuz erlaxaziorako ariketak egin dituzte. Bero bidezko terapiaren bidez kirurgia aurreko antsietatea murriztea lortu da. Eskuorri bidezko informazio prozedurala jaso duen taldearen antsietate maila murriztea lortu da, baina ez da bero bidezko terapia bezain eraginkorra izan (26). Genç et al.-ek egindako ikerketaren arabera humorea erabiltzea antsietatea murritzeko eraginkorra da. Ikerketan arreta desbideratzeko teknika moduan interbentzio taldeko partaideek ebakuntza baino lehen 10 minutuko komediazko bideo bat ikusi dute (27).

4.5 Terapia alternatiboak

Terapia alternatiboei dagokionez, erabiltzailearen arreta desbideratzeko musika-terapia aplikatzeari buruz hitz egiten duten hiru artikulu aurkitu dira. Bi entseguetan musikaren

bidez antsietatea murriztea lortu da, bestean ez da lortu antsietatea murriztea. Bi entsegu klinikoen emaitzen arabera ebakuntza-gelara sartu aurretik 30 minutuz musika entzutea kirurgia aurreko antsietatea murrizteko eraginkorra da. Gainera, parametro hemodinamiko hobeak eta gogobetetasun maila altuagoak erregistratu dira interbentzio taldeetan (28, 29). Beste entsegu klinikoan ebakuntza-gelara sartu baino lehen 10 minutuz musika entzutea (4 abesti aukeran) ez da eraginkorra izan kirurgia aurreko antsietatea murrizteko (30).

Aurkitutako beste terapia alternatibo bat akupuntura izan da. Bi ikerketetan kirurgia egunean ebakuntza-gelaren aurreko gelan akupuntura aplikatu da, ikerketa batean akupuntura aurikularra eta bestean EX-HN3 puntuari (bekainen artean) eta bietan interbentzio taldeetako partaideen antsietate mailan murriztea erregistratu da (31, 32).

Terapia alternatiboekin jarraitzeko, akupresioari buruz hitz egiten duen artikulu bat aurkitu da. Entsegu klinikoan talde esperimentaleko parteideei, kirurgia baino ordu bat lehen, 10 minutuz HE7 puntuari (eskumuturrean) akupresioa egin zaie. Emaitzen arabera akupresioa egin zaien pazienteek kirurgia aurreko antsietate maila baxuagoa dute (33).

Interbentzio moduan aplikatu daitekeen beste terapia alternatibo bat aromaterapia da. Aromaterapiari buruzko 3 ikerketa aurkitu dira. Hiru ikerketetan izpilik bidezko aromaterapia erabili da eta guztiengandik antsietatea murriztea lortu da. Bi ikerketetan, kirurgia aurreko gelan izpiliku larruazaleko partxe edo olio bidez aplikatu da eta izpilik usaindu duten interbentzio taldeetan antsietate maila baxuagoak erregistratu dira (34, 35). Genc et al.-ek egindako ikerketan interbentzio taldeko partaideek izpiliku tantekin nebulizazio bidezko arnasketak egin dituzte eta antsietate baxuagoa erregistratzeaz gain, arnas maiztasun baxuagoak eta oxigeno saturazio altuagoak erregistratu dira (12).

Terapia alternatiboekin amaitzeko, kirurgia aurreko gelan masajeak emateari buruz hitz egiten duten bi ikerketa aurkitu dira eta bietan masajeak kirurgia aurreko antsietatea murrizteko eraginkorrik izan dira. Entsegu kliniko batean 30 minutuz oinetako erreflexu puntuetan masajea egin zaie interbentzio taldeko partaideei (13) eta beste entsegu klinikoan, interbentzio taldeari 15 minutuz bizkarrean kolpe motel bidezko masajea egin zaie (36).

4.6 Teknologia berriak

Teknologia berriei esker erabiltzaileen antsietatea murrizteko interbentzio desberdinak diseinatu daitezke. Berrikuspen bibliografiko honetan komunikaziorako plataforma

birtual bat eta errealitate birtualaren erabilera aztertzen duten artikulu bana aurkitu dira eta badirudi bi interbentzioak eraginkorrik izan direla antsietate maila murrizteko. Plataforma birtualei buruzko entsegu klinikoan ASP (Anesthesia Service Platform) deitutako plataforma birtualaren eragina aztertzen da. Plataforma birtualerako sarbidea anestesia aurreko kontsultan eskaintzen da eta plataformaren bidez erabiltzaileak anestesistekin komunikatzeko aukera dute. Emaitzek diotenez ASP bidezko anestesistekin komunikazio interaktiboa kirurgia aurreko antsietatea murrizteko eraginkorra da. Horrez gain, pazienteen ongizate orokorra hobetzen da eta ospitaleko egonaldia laburtzen da. Hala ere, erabiltzaileak minarekiko sentsibilizatu dira eta kirurgia ondorengo analgesiaren kontsumoa handitu da (37). Beste artikuluan kirurgia aurreko prestakuntza moduan errealitate birtual bidezko irudiak ikustearen efektua ebaluatu da. Entsegu klinikoan ikusi da heziketa emateko errealitate birtuala erabiltzeak kirurgia aurreko antsietatea murrizteko erabilgarria izan daitekeela eta gogobetetasun maila altuagoak erregistratu dira. Nahiz eta antsietate maila baxuagoak erregistratu diren, ez da eragin nabarmenik erregistratu kirurgiaren zeharreko minean ezta prestakuntza mailan (38).

4.7 Prehabilitazioa

Orain arte kirurgia aurretik epe laburrean aplikatu daitezkeen interbentzioak aipatu dira, baina badaude kirurgia jasango duten pertsonen prestakuntza hobeagoa bermatzeko denbora luzeagoan aplikatu daitezkeen interbentzioak, adibidez prehabilitaziorako programak. Berrikuspen honetan PERACS deitutako prehabilitazio programak antsietatean eta depresioan duen eragina ebaluatu zuen ikerketa bat aurkitu da. Programan kirurgia aurreko 3-6 asteetan entrenamendu fisikoko sesio desberdinak egin dira. Entsegu klinikoaren emaitzen arabera, ez da aurkitu desberdintasun esanguratsurik kirurgia egunean neurtutako antsietate mailan interbentzio eta kontrol taldearen artean. Hala ere interbentzio taldeak hobekuntzarako joera arina izan du (39).

4.8 Farmakoen erabilera

Amaitzeko, aipatzeko da kasu batzuetan antsietatea interbentzio ez farmakologikoen bidez maneiatzea zaila izan daitekeela eta antsiolitiko moduan farmakoak erabili beharko direla. Hala ere, aukera moduan ohiko farmakoak baino aukako efektu xumeagoak dituzten farmakoen erabilera aztertu dituzten ikerketak daude. Berrikuspen honetan hautazko farmako desberdinei buruz hitz egiten duten hiru artikulu aurkitu dira eta

Midazolamaren erabilerari buruz hitz egiten duen artikulu bat aurkitu da. Hiru artikuluen emaitzetan kirurgia aurreko medikazioak antsiestatea murriztu zuela diote, beste artikuluan ez da desberdintasun nabarmenik aurkitu plazebo eta farmakoaren artean. Berrikuspen sistematiko batean Melatoninaren efektuak aztertzen dira. Berrikuspenaren arabera kirurgia baino 50-120 minutu lehen Melatonina administratzea kirurgia aurreko eta ondorengo antsiestatea murrizteko bentzodiazepinak bezain eraginkorra da (40). Bestalde, beste entsegu kliniko baten arabera, kirurgia baino bi ordu lehen Gabapentina administratzea kirurgia aurreko antsiestatea murrizteko eraginkorra da; gainera, kirurgia ondorengo Morfinaren kontsumoa murrizteko eta kirurgia ondorengo mina murrizteko eraginkorra da (41). Beste entsegu kliniko batean, Pregabalinaren erabilera aztertzen da eta kirurgia aurreko antsiestatea murrizteko eraginkorra dela ikusi da. Gainera, beste farmakoetan baino aurkako efektu gutxiago erregistratu dira (42). Azkenik, Midazolamaren eragina aztertu duen entsegu klinikoaren emaitzen arabera, Midazolama ez da kirurgia aurreko antsiestatea murrizteko eraginkorra. Hala ere entropia balioak murrizten ditu, anestesikoen efektu lasaigarria handitzen du, anestesiarako indukzio denbora murrizten du eta hemodinamika egonkortzen du (43).

EZTABaida

Erizainak bestelako profesionalekin batera pazienteen antsiestatea murrizteko baliagarriak izan daitezkeen estrategia ugari eskaini ditzakete, interbentzio ez farmakologikoak erizainen zeregin garrantzitsuenetakoak dira (15). Azpimarratzeko da berrikuspen honetan interbentzio ez farmakologikoen artean heziketa izan dela estrategia eraginkorrenetakoa. Ikerketa ugaritan erizainek kirurgia aurretik ematen duten heziketaren garrantzia azpimarratzen da (7, 11, 18). Redrado et al.-ek egindako berrikuspen sistematikoan erabiltzailean oinarritutako heziketa enpatikoaren erabileraren garrantzia azpimarratzen da. Emaitzek diotenez heziketaren bidez antsiestatea murrizten da, berreskurapen kirurgikoa hobetzen da eta erabiltzailearen gogobetetasuna handitzen da (4).

Antsiestate oso altua duten pertsonek informazioaren oroimenerako arazoak izan ditzakete (3); beraz, heziketaren gehigarri moduan bideoak edo liburuxkak erabili daitezke erabiltzaileari heziketa bisualagoa emateko, informazioaren atxikipena hobetzeko eta beharrez gero informazioa errepasatzeko aukera izateko (16).

Heziketaren uneak ere garrantzia dauka eraginkortasunean, txosten batzuen arabera kirurgia aurreko egunean edo kirurgia egunean bertan heziketa ematea ez da nahikoa antsietatea murrizteko (15). Heziketa kirurgia baino aste bat edo bi aste lehenago (kirurgia aurreko ebaluazioarekin batera) ematea gomendatzen da (15). Horrez gain, erabiltzaile batzuk besteak baino denbora gehiago beharko dute beharrezko informazioa jasotzeko. Hala ere, nahiz eta heziketa edo informazioa jasotzea antsietatea murrizteko interbentziogarrantzitsua den, errekurso faltengatik (erizain nahiko eza, denbora eza edo ospitaleko azpiegitura instituzional eza) erabiltzaile batzuek ez dute informazio nahikoa jasotzen (21). Errekurso faltari aurre egiteko, heziketan informazio eraginkorragoa eman behar da. Horretarako, berrikuspen honetan ikusitako entsegu kliniko batean bezala, erabiltzaileei heziketa eman baino lehen jaso nahi duten informazio kantitateari buruzko galdegegi bat pasatzea egokia izango litzateke, soilik beharrezko informazioa emanetzen denbora eta errekursoak aurreztu daiteke eta erabiltzailearen gogobetetasuna handitzen da (17).

Kirurgia aurreko antsietatea erabiltzailearen kezkekin lotura ere badu. Ondorioz, erabiltzailearekin komunikazioa beharrezkoa da eta dituen kezkak komunikatzeko eta konpontzeko aukera eman behar zaio. Egindako berrikuspenean barneratutako entsegu kliniko baten emaitzetan ikusi daiteke komunikazio terapeutikoa ez dela eraginkorra izan antsietatea murrizteko. Artikulan diotenez, eraginkortasun ezaren zergatia denbora falta izan da, 30 minutu ez dira nahikoak izan antsietateari aurre egiteko (25). Redrado et al.-ek egindako berrikuspen sistematikoan ikusi da erabiltzailearekin komunikazio terapeutikorako sesioak egitea antsietatea murrizteko eraginkorra dela. Interbentziomoduan Hildegard Peplauren faseetan oinarritutako lau sesio egin dira: orientaziorako 25-40 minutu, identifikaziorako 35-60 minutu, esploraziorako 40-60 minutu eta ebazpenerako 45-60 minutu (4).

Terapia alternatiboen erabilera ikerketa ugaritan aztertu da (musika-terapia, akupuntura, akupresioa, aromaterapia, masajeak ematea, etab.), badirudi antsietateari aurre egiteko eraginkorrak diren interbentzioak direla. Gainera, errekurso aldetik eskuragarriak dira, merkeak dira eta kirurgia egunean bertan ebakuntza-gelara sartu baino lehen modu errazean aplikatu daitezke. Adibidez, Redrado et al.-en berrikuspen sistematikoan musika-terapiaren eta humorearen erabilera aztertu da. Emaitzen arabera humorea edo

musika antsietaea murrizteko, sentimendu desatseginak aldentzeko, ikasketa errazteko eta ingurunea lasaitzeako erabili daitezke, esperientzia kirurgikoa hobetzen delarik (4).

Berrikuspen honetan ikusi daiteke kirurgia motaren arabera interbentzio eta kontrol taldeetako hasierako antsietae mailak aldakorrak direla. Hau kontuan izanik, kirurgia motaren arabera antsietae altuagoa jasateko arriskua duten pazienteak identifikatu daitezke eta antsietaea murrizteko denbora gehiago eskaini daiteke. Gainera, interbentziorik jasotzen ez duten kasuetan, kirurgia gehienetan antsietae mailak gora egiten du; beraz, antsietaeari kasurik ez egitea eta murrizten ez saiatzeak arazoa okertu dezake. Sarreran aipatu bezala, antsietae maila altuak kirurgiako fase guzietan eragina du (adibidez: egonezin fisiko eta mentala, kirurgian konplikazioak izateko probabilitate altuagoak, kirurgia ondoren min gehiago, etab.). Antsietaea gaizki maneiatur gero, pazienteek interbentzioa atzeratzea edo bertan bera uztea erabaki dezake. Klinikoki eta ekonomikoki eragin negatiboa izanik (9, 10).

Hala ere, gaur egun errekurso faltagatik (denbora) erabiltzaileak kirurgia aurretik antsietaea badu edo urduri badago, gune kirurgikora iristean zuzenean medikazioaren administrazioa nahiko ohikoa da (15). Farmako erabilienak bentzodiazepinak dira. Farmako hauek aurkako efektu ugari izan ditzakete, horien artean erreakzio paradoxikoak, gehiegizko sedazioa, odol presioaren murrizketa eta arnas depresioa (43). Nahiz eta farmakoek aurkako efektuak izan ditzaketen, antsietae maila bereziki altuak dituzten pertsonetan tratamendu farmakologikoa beharrezkoa izan daiteke. Ordezko farmakoak aztertu dituzten ikerketa ugari aurkitu dira (adibidez Melatonina, Gabapentina eta Pregabalina) eta badirudi ordezko farmako batzuk antsietaea murrizteko nahiko eraginkorrik direla eta ohiko farmakoak baino aurkako efektu eta interakzio xumeagoak dituztela, barneratutako artikuluetan erregistratutako aurkako efektuak ondorengoak izan dira: buruko mina, goragaleak, logura eta kasu gutxietan zorabio sentsazioa (40-42).

Amaitzeko, aipatzeko da aurkitutako ikerketetan interbentzioak paziente talde zehatzetan aplikatu direla. Berrikuspen honetan soilik programatutako ebakuntza egingo zitzaien helduei zuzendutako interbentzioak aztertu dira; beraz, bestelako testuingurueta (adibidez: urgentzieta, adineko pertsonetan edo haurretan) aurkitutako interbentzioen eraginkortasuna aldakorra izan daiteke. Adibidez urgentzia kasuan agian ezin izango da heziketa ona eman denbora faltagatik eta erabiltzailearen pertzepzioa murriztuagoa

dagoelako edo ezingo dira terapia alternatiboak aplikatu, baina bai farmakoak eta agian aztertutako farmako seguruagoen aplikazioa aztertzea ondo legoke. Haurretan edo adineko pazienteetan, agian heziketa ez da hain eraginkorra izango, atxikipen edo ulermen gaitasun baxuagoa dutelako, baina distrakzioak eta terapia alternatiboak erabilgarriak suertatu daitezke. Hala ere, bestelako testuinguruetan interbentzioen eragina aztertu beharko litzateke. Ondorioz, interbentzioak testuinguru desberdinatan aplikatzean duten eraginkortasuna argiago aztertzeko eta interbentzioak ebakuntza aurreko prestakuntzaren protokoloan nola txertatu zehazteko ikerketa gehiago beharrezkoak dira.

ONDORIOAK

Kirurgia programatuaren ezaugarrietako bat beharrezko prestakuntza ahalik eta hoherena bermatzea da. Antsietateak eragiten dituen arazo edo konplikazioak kontuan izanik, beharrezkoa da osasun langileek erabiltzaileen antsietatea murrizteko eta prestakuntza psikologiko hobea bermatzeko interbentzioen berri izatea eta interbentzioak aplikatzen jakitea. Lehenik eta behin, erabiltzaileak kirurgia aurretik duen antsietate maila neurtzeko berrikuspen honetan ikusitako galdetegiak erabiltzea gomendagarria da (adibidez STAI edo APAIS) erabiltzaileak bere kabuz bete ditzaken galdetegiak dira eta betetzeko ez dute denbora gehiegiz behar.

Erabiltzaileari haren prozesuaren parte izaten ahalbidetu behar zaio, horretarako jasoko duen arreta bere nahien eta ezaugarrien arabera moldatu behar da. Kirurgiaren prestakuntzaren protokoloan heziketa ematen da, baina emandako heziketa ez da nahikoa izaten edo soilik heziketaren bidez ezin da erabiltzaile guztien antsietatea murritz. Alde batetik, heziketa moldatu behar da. Horretarako, erabiltzaileari jaso nahi duen informazio motari eta kantitateari buruz galdu behar zaio. Bestalde, berrikuspen honetan zehar ikusitako estrategia edo interbentzioak ebakuntzaren prestakuntzarako protokoloetan aplikatzea interesgarria izan daiteke eta erabiltzailearen arabera interbentzio bat edo beste aplikatu daiteke arreta indibidualizatuagoa eskaintzeko.

Pazientearen oinarritutako arreta indibidualizatua erabiltzaileak ikuspuntu holistiko batetik tratatzea inplikatzen du. Kirurgian bereziki ikuspuntu biologikoa izaten da kontuan baina bestelako ikuspuntuak eragina izan dezakete prozesuan; beraz, erabiltzaileak psikologikoki, sozialki eta kasu batzuetan espiritualki ere prestatu behar dira. Erizainak

fisiko eta emozionalki implikatzen direnean prozesu guztian zehar eta bereziki kirurgia aurreko fasean erizainek duten gertutasunak sortzen duen konfiantza eta erlazio terapeutikoarengatik erabiltzaileen antsietatearen eta beldurren murrizketan eragina izango dute.

BIBLIOGRAFIA

1. Manual MSD [Internet]. Nueva Jork: MSD; 2020 [kontsulta, 2022/11/03]. Cirugía; [12 pantaila ggb]. Erabilgarri: <https://www.msdmanuals.com/es-es/hogar/temas-especiales/cirug%C3%ADa/cirug%C3%ADa>
2. Medical News Today [Internet]. Erresuma Batua: Medical News Today; 2020 [kontsulta, 2023/04/01]. Estrés vs. Ansiedad: Cómo identificar la diferencia; [7 pantaila ggb]. Erabilgarri: <https://www.medicalnewstoday.com/articles/es/estres-y-ansiedad>
3. Moreno P, Calle A. Detección y actuación en la ansiedad preoperatoria inmediata. De la teoría a la práctica. Cir May Amb [Internet]. 2015 [kontsulta, 2022/11/23];20(2): 74-78. Erabilgarri: http://www.asecma.org/Documentos/Articulos/06_20_2_OR_Moreno.pdf
4. Redrado J, García F. Abordaje de la ansiedad preoperatoria. RSI [Internet]. 2021 [kontsulta, 2022/11/23];2(1). Erabilgarri: <https://revistasanitariadeinvestigacion.com/abordaje-de-la-ansiedad-preoperatoria/#:~:text=La%20ansiedad%20preoperatoria%20se%20describe,cirug%C3%ADa%2C%20o%20lo%20desconocido1>
5. Sanidad.gob [Internet]. Spainia: ministerio de sanidad; 2021 [kontsulta, 2023/04/13]. Intervenciones quirúrgicas realizadas en hospitales del Sistema Nacional de Salud (SNS), frecuentación por 1.000 habitantes, porcentaje de intervenciones de Cirugía Mayor Ambulatoria (C.M.A.) sobre el total de intervenciones y días de espera para intervenciones no urgentes según comunidad autónoma; [2 pantaila ggb]. Erabilgarri: <https://www.sanidad.gob.es/estadEstudios/sanidadDatos/tablas/tabla26.htm>
6. Álvarez-García C, Yaban Z. The effects of preoperative guided imagery interventions on preoperative anxiety and postoperative pain: A meta-analysis. Complement Ther Clin Pract. 2020 [kontsulta, 2022/12/16];38:101077. doi: [10.1016/j.ctcp.2019.101077](https://doi.org/10.1016/j.ctcp.2019.101077)
7. Arakelian E, Laurssen E, Öster C. Older Patients' Worries in Connection With General Anesthesia and Surgery-A Qualitative Study. J Perianesth Nurs. 2018 [kontsulta, 2022/11/20];33(6):822-833. doi: [10.1016/j.jopan.2018.01.005](https://doi.org/10.1016/j.jopan.2018.01.005)
8. Eberhart L, Aust H, Schuster M, Sturm T, Gehling M, Euteneuer F, et al. Preoperative anxiety in adults - a cross-sectional study on specific fears and risk factors. BMC Psychiatry. 2020 [kontsulta, 2023/02/10];20(1):140. doi: [10.1186/s12888-020-02552-w](https://doi.org/10.1186/s12888-020-02552-w)

9. Celik F, Edipoglu IS. Evaluation of preoperative anxiety and fear of anesthesia using APAIS score. *Eur J Med Res.* 2018 [kontsulta, 2022/11/20];23(1):41. doi: [10.1186/s40001-018-0339-4](https://doi.org/10.1186/s40001-018-0339-4)
10. Demirhan A, Velioglu Y, Yoldas H, Karagoz I, Cosgun M, Caliskan D et al. An Easy and Reliable Way to Prevent Electrocardiographic Deteriorations of Patients Undergoing Off-Pump Coronary Artery Bypass Surgery: Preoperative Anxiolytic Treatment. *Braz J Cardiovasc Surg.* 2019 [kontsulta, 2022/11/20];34(3):311-317. doi: [10.21470/1678-9741-2018-0282](https://doi.org/10.21470/1678-9741-2018-0282)
11. Mousavi N, Zakerimoghadam M, Esmaeili M, Kazemnejad A. Effects of Nurse-Led Intervention on Patients' Anxiety and Sleep Before Coronary Artery Bypass Grafting. *Crit Care Nurs Q.* 2018 [kontsulta, 2022/12/22];41(2):161-169. doi: [10.1097/CNQ.0000000000000195](https://doi.org/10.1097/CNQ.0000000000000195)
12. Genc H, Saritas S. The effects of lavender oil on the anxiety and vital signs of benign prostatic hyperplasia patients in preoperative period. *Explore.* 2020 [kontsulta, 2022/12/20];16(2):116-122. doi: [10.1016/j.explore.2019.07.008](https://doi.org/10.1016/j.explore.2019.07.008)
13. Navaee M, Khayat S, Abed ZG. Effect of pre-cesarean foot reflexology massage on anxiety of primiparous women. *J Complement Integr Med.* 2020 [kontsulta, 2022/12/21];17(3). doi: [10.1515/jcim-2019-0229](https://doi.org/10.1515/jcim-2019-0229)
14. Zhang M, Haq Z, Braithwaite E, Simon N, Riaz K. A randomized, controlled trial of video supplementation on the cataract surgery informed consent process. *Graefes Arch Clin Exp Ophthalmol.* 2019 [kontsulta, 2022/12/30];257(8):1719-1728. doi: [10.1007/s00417-019-04372-5](https://doi.org/10.1007/s00417-019-04372-5)
15. Lemos M, Lemos-Neto S, Barrucand L, Verçosa N, Tibirica E. Preoperative education reduces preoperative anxiety in cancer patients undergoing surgery: Usefulness of the self-reported Beck anxiety inventory. *Braz J Anesthesiol.* 2019 [kontsulta, 2022/12/27];69(1):1-6. doi: [10.1016/j.bjan.2018.07.003](https://doi.org/10.1016/j.bjan.2018.07.003)
16. Amini K, Alihossaini Z, Ghahremani Z. Randomized Clinical Trial Comparison of the Effect of Verbal Education and Education Booklet on Preoperative Anxiety. *J Perianesth Nurs.* 2019 [kontsulta, 2022/12/21];34(2):289-296. doi: [10.1016/j.jopan.2018.06.101](https://doi.org/10.1016/j.jopan.2018.06.101)
17. Wongkietkachorn A, Wongkietkachorn N, Rhunsiri P. Preoperative Needs-Based Education to Reduce Anxiety, Increase Satisfaction, and Decrease Time Spent in Day Surgery: A Randomized Controlled Trial. *World J Surg.* 2018 [kontsulta, 2022/12/19];42(3):666-674. doi: [10.1007/s00268-017-4207-0](https://doi.org/10.1007/s00268-017-4207-0)

18. Gezer D, Arslan S. The Effect of Education on the Anxiety Level of Patients Before Thyroidectomy. *J Perianesth Nurs.* 2019 [kontsulta, 2022/12/19];34(2):265-271. doi: [10.1016/j.jopan.2018.05.017](https://doi.org/10.1016/j.jopan.2018.05.017)
19. Soydaş D, Yıldız Ü. Effect of Preoperative Video Information on Anxiety and Satisfaction in Patients Undergoing Abdominal Surgery. *Comput Inform Nurs.* 2019 [kontsulta, 2022/12/17];37(8):430-436. doi: [10.1097/CIN.0000000000000505](https://doi.org/10.1097/CIN.0000000000000505)
20. Ahmed KJ, Pilling J, Ahmed K, Buchan J. Effect of a patient-information video on the preoperative anxiety levels of cataract surgery patients. *J Cataract Refract Surg.* 2019 [kontsulta, 2022/12/20];45(4):475-479. doi: [10.1016/j.jcrs.2018.11.011](https://doi.org/10.1016/j.jcrs.2018.11.011)
21. Yuzkat N, Soyalp C, Turk O, Keskin S, Gulhas N. Effects of showing the operating room on preoperative anxiety and hemodynamics among patients with hypertension: A randomized controlled trial. *Clin Exp Hypertens.* 2020 [kontsulta, 2022/12/19];42(6):553-558. doi: [10.1080/10641963.2020.1723619](https://doi.org/10.1080/10641963.2020.1723619)
22. Bagheri H, Ebrahimi H, Abbasi A, Atashsokhan G, Salmani Z, Zamani M. Effect of Preoperative Visitation by Operating Room Staff on Preoperative Anxiety in Patients Receiving Elective Hernia Surgery. *J Perianesth Nurs.* 2019 [kontsulta, 2022/12/20];34(2):272-280. doi: [10.1016/j.jopan.2018.04.005](https://doi.org/10.1016/j.jopan.2018.04.005)
23. Felix MM, Ferreira MB, Oliveira L, Barichello E, Pires P, Barbosa M. Guided imagery relaxation therapy on preoperative anxiety: a randomized clinical trial. *Rev Lat Am Enfermagem.* 2018 [kontsulta, 2022/12/16];26:e3101. doi: [10.1590/1518-8345.2850.3101](https://doi.org/10.1590/1518-8345.2850.3101)
